

ek!

...eta kitto!

Euskara Elkartearen astekaria

2020ko maiatzak 29 · 1143. zenbakia

AZOKEN KOLOREA BERRIRO GURE ARTEAN



Arragueta 27 Eibar


URRATEGI
INTERIORISMO
bone dienerua

www.urrategiinteriorismo.com

dica.



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktoroa

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Aduas Aho Kirurgian,
Periodontzian, Implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomaturak Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomaturak.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomaturak.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

**Deporra lanerako dago**

Lerro hauen bidez Deporren hartutako azken erabakien berri eman nahi dizuegu:

- 1) Taberna eta lokala zabalduko ditugu maiatzaren 29tik aurrera, martitzenetik zapatara, arratsaldeko 17:30etik 19:30erako tartean.
- 2) Ekaineko eta uztaileko ekintza gehienak bertan behera lagatzea erabaki dugu, puntualki eta egoeraren arabera zerbaite egiteari uko egin gabe.
- 3) Bulegoak itxita izaten jarraituko dugu, baina edozein kontsulta, federatu-lizentzien gorabeherak, irailatik aurrerako matrikula berriak,.... web orrialde bidez egin ditzakezue: <https://www.deporeibar.com/es/>
Taberna zabalik dagoen ordutegian bertako kontserjeari ere edozein argibide eskatu diezaiokizue eta bideratuko ditu dagokion arduradunari.
- 4) Udalari begira mendi-lizentzia tramitatu nahi duen orok izango du aukera, mendia@deporeibar.com helbidera idatzita.
Animo, eta hemen gaituzue! Pixkanaka-pixkanaka zerbitzuak eskaintzeko asmoz.

Eibarko Klub Deportiboa

“Gure kasuan ‘hiztun berri / hiztun zahar’ kategoriak oso bereizleak dira. Ingelesaren edo gaztelaniaren kasuan, hiztun ona izatea anonimotasunak zehazten du. Alegia, zenbat eta azentu gutxiago, zenbat eta neutroago hobe; zenbat eta jasoago, zenbat eta idatzitiek gertuago, hiztun hobea. Aldiz, euskararen kasuan -eta hizkuntza gutxituetan askotan gertatzen da- autentikotasunaren arabera ebaluatzen da eta orduan alderantzizko prozesua da. Zenbat eta dialekto markatuagoa, kokagarriagoa lekuan, zenbat eta elebarragoa hobeto... Hori da hiztun egiazkoa eta hiztun ona. Badira euskaraz egiten ez duten hiztun zaharrak eta badira erabat euskarari emanda bizi diren hiztun berriak. Araban bertsozaleak ez litzateke existituko hiztun berririk gabe eta, hala ere, oraindik gertatzen da bertso eskoletan itxaropen baxuagoak edukitzea hiztun berriekin inkontzienteki”

MIREN ARTETXE, bertsolaria eta ikerlaria

“Ebidentzia zientifiko gabeko hipotesia da, baina susmoa dut euskara izan daitekeela informazioaren kalitate zigilu. *Fake news* arteko nabigazioa toxikoagoa da ziurren erdaretan euskarazko prentsan baino. Euskarazko hedabideetan jasotako informazioa fidagarriagoa da; areago, hedabide horiek krisiari ematen ari zaizkion tratamendua ereduagarria da, inguruko beste hedabide batzuetan loratu den populismo edulkoratuari ihes eginez. Baina gauza batek huts egiten die: informazio iturriek. Pandemiari buruz erakundeek egunero jariatzen dituzten albiste eta komunikazioak erdaraz ziurtatuta daude; euskaraz, ez beti. Administrazio bozeramaile batzuen agerpenak antologikoak izan dira, primerako bazka umore beltzerako. Hizkuntzaren atzean hiztunak gaude, eta gutxietsi eta iraindu egiten gaituzte. Herriar izendaezin bihurtu gaituzte; hiztunen zentzurik txarreanean”

ELIXABETE GARMENDIA, kazetaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MUSIKA. → Aitzakia, zentzu figuratuan. “Badakit zer musika darabixan horrek”.

MUSTUR. → Pertsonen ezpain alde. “Musturrez aurrera jausi eta golpe latza hartu neban”.



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkarte
HELBIDEA
Urkizu, 11. 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez
ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINUA
Maku Oruezabal
MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

ARGAZKI ARLOA
Malen Jainaga eta
Malen Illarramendi
HIZKUNTZA ARDURA
Juan Andres Argoitia eta
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Itziar Albizu eta Belen Ulazia
TELEFONOA
943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA
Ekhi Belar
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
7.450 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)





Orain dela urtebete horrelakoak ginen

...eta kitto! astekariak Aztiker soziologia ikerlariak egindako azterketaren datuak kaleratu zituen. Inkestak islatu zuenez, aldizkariak 15.000 irakurle ditu eta oso balorazio ona jaso zuen. 80 jardueratik gora biltzen zituen Sanjuan jaietako egitaraua aurkeztu zuten Kultura batzordeko ordezkariak. Ingeniaritza Eskolak kalitatezko irakaskuntzari UPV/EHUk emandako aitortpena jaso zuen. J.A. Mogel Ikastolako Kirola Euskaraz Bizi ekitaldiak edizio berria bizi izan zuen, eguraldi bikaina lagun zuela. Poesia eta Musika Gauaren zazpigarren edizioa egin zuten Ibarkurutzeko iturrian Itzamna tailerrekoen eskutik. Urbat-Urkotronik waterpolo lehen taldeak Euskal Herriko Liga bereganatu zuen Leioan irabazita. Ibon Vega, Mikel Lizarralde, Jose Maria Bernedo eta Ander Barrenetxea eibartarrek Zegama-Aizkorri mendimarattoa amaitu zuten.

Argazkiak: 1- Poesia gaua Ibarkurutzen. 2- Sanjuan jaietako egitarauaren aurkezpena. 3- Kalitate diploma Ingeniaritza Eskolarentzat. 4- Kirola Euskaraz Bizi Iturburur. 5- Waterpolo Euskal Herriko Liga Urbatentzat. 6- Lau eibartar Zegama-Aizkorriin.





Astlehenean hasiko dira aurrez aurreko arreta ematen Lanbiden

>>> Astlehenean aurrez aurreko arreta emateari ekingo dio berriz Lanbidek. Metakrilatozko manparak, distantziak gordetzeko markak eta edukiera mugatua adierazteko kartelak eta gel hidroalkoholikoak edota paper-zapi garbitzaileak jarri dituzte bulegoetan, besteak beste. Gainera, bulegoen ohiko garbiketa sendotuko da. Bulegoak zabalik egongo diren arren, Lanbidek komunikazio telematikoa sustatzen eta bultzatzen jarraituko du etxetik egin daitezkeen izapide guztiei

bide emateko. Beatriz Artola-zabal sailburuaren berbetan, "bulegoetan ahalik eta jende gutxien batzea eta geletan itxaroteko denborak murriztea da helburua".

Bulegora joateko hitzordua eskatu beharko da Lanbide-ren webgunearen bitartez edo 945 160 600 / 630 305 452 telefonoetara deituta. Lanbidek Qmatic Mobile sistema ezarri du eta, honen bidez, hitzordua eskatzen duen pertsonak QR kode bat jasoko du mugikorrean.

NAN eta pasaportearen egin edo berritzeko txanda eska daiteke

>>> Eguaztenaz geroztik abian dago berriz ere NAN eta pasaportearen egin edo berritzeko zerbitzua, deseskalatzearen 2. fasean dauden eremu guztietan. Tramiteak egiteko, ezinbestekoa izango da aurretik hitzordua eskatzea, interneten (www.citapreviadnie.es) zein telefonoz (060). Esandako egun eta orduan bulegora joan beharko da, maskara ipinita, eta ordaindu beharreko kopuru zehatza dirutan eramanda (NAN tramitatzeke 12 euro eta pasaportearentzat, berriz, 30 euro).



Zahar etxeetara bisitak, ekainaren 8tik aurrera

>>> Gipuzkoako Foru Aldundiak ekainaren 8tik aurrera zahar etxeak bisitatzea ahalbidetzeko asmoa duela berretsi du aste honetan bertan egingo dako adierazpenetan. Egoiliar bakoitzeko senide bakarra joan ahal izango da eta neurriak zorrotz tuko dituzte bisitak egin ahal izateko.



"Aurten bai, Eibarren 1.500 euskaraz"



ERRENTA AITORPENA, aukeran, EUSKARAZ!

- **Autolikidazio proposamena** onartzerakoan euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Mekanizatua egiteko** ordua hartzerakoan euskaraz egin nahi duzula esan.
- **Internet bidez** egitean errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta hobetsitako hizkuntza atalean euskara aukeratu.
- **Aholkularitzaren** bat aukeratzen baduzu, adierazi euskaraz egin nahi duzula.

EUSKARA BATZORDEA
www.eibar.eus





Eibar Ospitalea izango da erreferentziazko zentroa

>>> Markel Olano diputatu nagusiaren berbetan, Gurutze Go-riak Donostian duen zentro soziosanitarioa datozen asteetan hasiko da bertan bizi direnak artatzen, krisialdia hasi zenean euren etxeetara edo beste egoitza batzuetara eraman baitzituzten. Foru Aldundiak Eibarko Ospitaleko hirugarren solairuan birkokatuko du COVID-19ari bereziki zuzendutako zentroa eta bertan artatuko dituzte egoitzetako nagusiak; solairu hori zentro soziosanitario gisa gaitu da orain dela gutxi, eta 48 plaza ditu guztira. Orain arte Donostiakoa izan da erreferentziazko zentroa, eta COVID-19an positibo eman duten Gipuzkoako zahar etxeetako erabiltzaileak artatzeko baino ez da erabili. Zentroak 130 plaza ditu guztira, eta lurraldeko hornidura soziosanitario handiena da.

35.000 maskara baino gehiago banatu dituzte makinak kalean ipini eta lehenengo astean

>>> Urkotronikek Eibarko Udalarari emandako datuen arabera, txartelak banatzen hasi eta lehen astean, 35.012 maskara (4 aleko 8.753 pakete) jaso zituzten eibartarrek asmo horrekin ipini dituzten makinetan. Maskara gehien, 14.732, Calbeton kaleko makinan banatu dira. Bigarren erabiliena, berriz, Berdintasunaren pasealekuko makina izan da (6.356 maskara) eta, horren atzetik, Orbea kiroldegikoa; Azitain eta Kantoi gasolindegietan 4.048 eta 4.412 maskara banatu dira, hurrenez hurren eta Ipuruan, Eibar Kirol Elkartearen dendan makina egun batzuk geroago ipini dutenez, 400 maskara banatu dituzte.

Udaletik azaldu dutenez, “dagoen eskaerari erantzun ahal izateko, Udalak lehendik zeuzkan maskarez gain, beste 80.000 ale erosi ditu orain dela gutxi, eta beste horrenbeste erostea aurreikusitako da”. Herritarrentzat eskuragarri ipintzen ari diren maskarek, erabilera bakarrek izan arren, lau or-



dutako iraupena dute. Hala ere, gogorarazi dutenez, maskara jantzi arren, ahal den guztietan gainontzeko higie eta segurtasun arauak betetzen jarraitzea komeni da. Horrekin batera, herritarrei gogorarazi nahi diete “arduraz jokatu behar dutela, eta, ahal dela, jendepilaketak saihestu”. Bestalde, txartel edo makinekin arazorik izanez gero, Urkotronikek martxan ipini duen 619883000 telefono zenbakira deitu daiteke.

Udal Finantzaketa Foru Fondoko murrizketa salatu du EH Bilduk

>>> Udal Finantzaketa Foru Fondoan murrizketa egiteko Foru Aldundiak hartutako erabakiaren ondorioz, Eibarko Udalak aurreikusita zuena baino 4 milioi euro gutxiago jasoko dituela-eta, Aldundiak hartutako erabakia berraztertzeke moztu aurretik du EH Bilduk. Gorka Errastiren berbetan, “Foru Fondoan izan ohi da udalen finantziario iturri nagusia. Herri txikiaren kasuan diru iturrien %60a suposatuz dezake Fondoak. Baina Aldundiak duela gutxi aldeba-karrez hartutako erabakia eta gero, Gipuzkoako udalek %20 ko murrizketa jasango dugu.



Eibarko kasuan, ia 20 milioi euro jasotzeko aurreikuspena genuen urte hasieran. Orain, ordea, 4 milioi euro gutxiago jasoko ditugu. Garai latzak datoz eta Aldundiak egoera are gehiago okertu du erabaki honekin”.

Erosketa-bonuek 100.000 euroko eragina izan dutela kalkulatu dute

>>> Erosketa-bonuen kanpainako salmentek gure herriko merkataritzan 100.000 euro inguruko eragin ekonomikoa izan dutela kalkulatu dute. Merkataritza-sektoreak arrakasta handizat jotzen du kanpaina, eta eskerrak eman nahi dizkie herritarrei, COVID-19aren ondorioz sektorearentzat horren zailak diren une hauetan eman-

dako laguntzagatik. Eibar Merkataritza Gune Irekiak iragarri duenez, datozen kanpainetan funtzionamendua hobetzeko asmoz, aldaketak egingo ditu. Edozein modutan ere, Udalak diruz lagundutako kanpainak aurreikuspen guztiak gainditu ditu eta sektorearentzat laguntza eta injekzio ekonomikoa handia izan dela uste dute.



Alderdi politikoek posta bidez bozkatzeko arreta zerbitzua emango dute

>>> Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak uztailaren 12rako deitzearekin batera, posta bidezko botoa sustatzeko kanpaina abiaraziko zutela esan zuen Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak: "Posta bidezko botoa emateko epeak luzatzea eskatu dugu. Oraingoan, boto-eskaera, uztailaren 2ra arte egin ahal izango da. Horrekin batera, eskaera Estatistikako Institutu Nazionalaren webgunetik deskargatzeko modua erraztea bultzatuko dugu".

Eibarko Uri Buru Batzarrak gogorarazi duenez, posta bidez botoa emateko laguntza behar izanez gero, Batzokiak (Ego Gain, 1-1D) honako arreta-ordutegia izango du: astelehenetik barixakura, 11:00etatik 13:00era eta 18:00etatik 20:00etara. Kontaktuan ipintzeko telefonoa 943 12 06 16 da

eta posta elektronikoa bidaltzeko helbidea eajpnveibar@gmail.com.

PSE-EE alderdiak ere posta bidezko botoarekin laguntzeko zerbitzua emango du, Untzagako bere egoitzan (Casa del Pueblo-n), astelehenetik barixakura bitartean, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Etxetik irten ezin direnentzat, bestalde, notario aurrean botoa emateko aukera ere badagoela gogorarazi dute. Edozein zalantza argitzeko 943207168 telefono zenbakira deitu daiteke.

Eta Eibarko EH Bilduk ere Bilgunea zabalduko du, astelehenetik aurrera, posta bidezko bozkari buruzko informazioa emateko: astelehen, eguazten eta barixakuetan, 11:00etatik 13:00era eta martitzen eta eguenetan, berriz, 18:00etatik 20:00etara.



Pentsiodunen astelehenetako kontzentrazioak bueltatu dira

>>> Eibarko Pentsiodunen Elkartek deituta, pensio publiko eta duinen aldeko kontzentrazioa egin zen astelehenean, hori bai, kutsatzeak saihesteko neurriak hartuta. Pentsioen gaiari heldu aurretik, Zaldibar-ko Zabortegian desagertuta jarraitzen duten Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran gogoratu zituzten, minutu bateko ixilunearekin. Pentsiodunen or-

dezkarrien berbetan, "badakigu batzuk ez dutela ongi ikusten egoera honetan kontzentrazioak deitzea, baina, jendea kallean dabil, terrazak bete egiten dira egunero... kontzentrazioak egiteko aparteko arazorik ez dago". Egoera honetan gauden bitartean, astelehenetako elkarretaratzeak 11:30etik 11:45era bitartean izango dira, harmailetan.

Deba eta inguruan jaiotako bazkaria aurrerago izango da

>>> Koronabirusak eragindako egoera dela eta, Deban, Lastur- turren, Itziarren, Endoian eta Elorriagan jaiotako bazkaria bizi direnek maiatzean egin behar zuten bazkaria bertan behera geratu zen, baina antolatzaileek aurrerago, posible bada irailan edo urrian egin nahi dutela jakinarazi nahi diote jendeari.





AUTO KONPONKETAK
AURRERA

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Urtzaile, z/g
Telefono eta Faxa: 943 20 80 65

20600 EIBAR
(Gipuzkoa)

MARAIS Zuloagatarren, 7 943 53 93 34

KONPLEMENTOAK





San Juan jaiak bertan behera

Ekaina gerturatzen joan ahala, aurtengo San Juan jaiekin zer gertatuko zen, azkenean ospatuko ziren ala ez, kezka hori zuten herritar askok. Baina oraindik jaiak ospatzeko esperantza txiki bat zutenen ilusioa bat-batean desagertu zen aurreko astean, Udalak aurtengo Sanjuanak bertan behera lagako zirela jakitera eman zuenean. Izan ere, agintariak "normaltasun berria" deitzen duten horretarako bidean aurrera egin arren, COVID-19aren pandemiagatik zaindu beharra dagoen distantzia soziala da gaur egun jaiak ospatu ahal izateko dagoen oztoporik handiena.

Aurtengo San Juan jaiak bertan behera lagatzeko erabakia hartu dute Udalean ordezkariak duten talde guztiek, aho batez, COVID-19ak eragin duen osasun-krisia dela eta. Hala eman zuten aditzera aurreko astean.

Horren berri emateko bidali zuten idatziaren arabera, "jaiak ez dira egingo hasieran aurreikusita zegoenaren arabera, baina, hala ere, Kultura Saila aztertzen ari da zer egin daitekeen eta nola egin daitekeen. Horretarako, ekitaldiak egiteko modua ahalbidetuko duten mekanismoak prestatuko dira, baina Udalak oso kontuan izango du ekaineko osasun-egoera, eta zorrotz beteko ditu une horretan indarrean dauden osasun-neurri guztiak".

Jaietako programa osatzen duten ekitaldi gehienek ez dituzte betetzen gaur egun dagoen egoeran bete behar diren jarraibideak eta, hori ikusita,

programazioa bertan behera lagatzea erabaki dute udal ordezkariak.

Kultura Batzordeko kideek maiatzaren 20an bilera egin zuten, gaiari heltzeko, eta jaietako ekitaldirik esanguratsuenak egiteko aukerarik egongo den ala ez aztertzea erabaki zuten: "Ekimen horiek streaming bidez edo bestelako formatu batean eskainiko lirateke, eta auzo desberdinetako balkoietara bideratutako kalejiretan oinarrituta egon litezke. Uneoro kontrolatuko da jende-pilaketarik ez egotea". Gauzak horrela, ekitaldi batzuk egitea ahalbidetuko duten mekanismoak bilatuko dituztela adierazi dute.

Hamaika jai geratu dira bidean

Urte sasoi honetan Euskal Herri osoan jaiak izaten direla gauza jakina da, baina zorritzarekin, Eibarko Sanjuanekin gertatutakoa ez da salbuespena izango. Orain dela egun batzuk Er-

Distantzia soziala gorde beharrak erabat oztopatzen du jaiak orain arteko moduan ospatzea



muko Santixauekin gauza bera egiteko erabakia hartu da. Are gehiago: gure herrian bertan ospatu beharreko asko bidean geratu zaizkigu: Santa Kurutz, Dia das Letras Galegas, Euskal Jaia, auzo ezberdinetako jai batzordeek antolatu ohi dituzten jaiak, San Isidroak... Hain zuzen ere, azken santu horren jaiaren egunean, maiatzaren 15ean, jakinarazi zuten Gas-teizko, Donostiako eta Bilboko jaiak bertan behera geratuko zirela hiru hiriburu-tako alkateek.

Kasu honetan ere, koronabirusarekin ez kutsatzeko zaindu beharreko distantziak bultzatu ditu erabaki hori hartzera, "aire librean eta ekitaldi jendetsuetan edukiera mugatu behar delako. Hiru hiriburu-erabakia koherentea da osasun publikoa bermatzeko Eusko Jaurlaritzaren irizpideekin eta Eudelen kultur eta jai ekitaldi-erako aho batez adostutako mugekin". ■

Aurrematrikulatzeko moduak:

1- Presentziala; etorri zaitez!

2- Telefonoz 943 20 84 44

3- Web bidez; www.uni.eus

**LANBIDE
HEZIKETA
2020-21**



**AURRE
MATRIKULA**

ekainak 1-19

IKASTETXE
PUBLIKO
DOAKOA**

Otaola Hiribidea, 29,
20600 Eibar, Gipuzkoa
943 20 84 44
idaszkaritza@uni.eus
www.uni.eus | @uni.eus



GOI MAILAKO ZIKLOAK

M NAZIOARTEKO MERKATARITZA

A ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK ESKAINTZA
PARTZIALA ARRATSALDEZ

F EGOKITZAPEN FISIKOA

GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA

I PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA

SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA

WEB APLIKAZIOEN GARAPENA

ESPEZIALIZAZIOAK

I ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETAKO
ZIBERSEGURTASUNA

ERDI MAILAKO ZIKLOAK

M MERKATARITZA JARDUERAK

A ADMINISTRAZIO KUDEAKETA

I SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREAK

EIBARKO AMAÑA HAURRESKOLA

**Irailean
urrian edo
azaroan hasteko**

MATRIKULAZIOA

IZEN EMATEA

*Online maiatzaren 21etik ekainaren 8ra. www.haurreskolak.eus

*Aurrez aurreko arreta (Haurreskolan): ekainaren 1etik 8ra.

Ordutegia: 09:00-14:00



Amaña Haurreskola // Artegietta 6 // amana.eibar@haurreskolak.eus // T.943 12 71 45



Erosketako orga berriz betetzen

Bi hilabete eta gero eguaztenetako azoka itzuli zen Urkizura joan den astean. Parke bietan banatu dituzte postuak segurtasun distantziei eutsi ahal izateko eta aldi berean 12 lagun sartu daitezke saltzaileak dauden eremuan. Saltzea gutxi ez balitz, postuetako saltzaile batek kontrolatzen du sarrera eta erosleen jokabidea. Itxialdi gogorraren ondoren, itzulera ez dihardu erraza izaten.

Antonio Gonzalez 'El cura' Urkizuko iturriaren alboan dago, sarreatik urrutien dagoen fruta eta barazkien postuan. Erosleak apurka iristen dira, baina ez da alarma-egoera aurretiko erritmo bera, ezta gutxiago ere. "Salmenta nahiko panggal dago", esan digu maskara koloretuaren atzetik.

Azoka gunean sartzen uzten duten erosle kopuru baxuaz kezka da. "Supermerkatuetan zenbat jende lagatzen dute sartzen gehienez?". Eta ez hori bakarrik, ez du ulertzen zergatik ezin izan diren etorri joan den

astera arte. "Apirilaren 14tik elikagaiak saltzeko baimena genuen eta udalek ez dute azokak jartzea izan nahi. Elikatzekateko azken katebegia gara".

'El cura'-k 40 egunez egon behar izan du geldirik eta kolpe gogorra izan da negozioarentzat. "Urtea pikutara joan zaigu". Hamahiru azokatan saltzen ditu bere produktuak eta azoketan saltzen den kalitatezko produktua aldarrikatzen du. Hori bai, produktuen prezioa igo egin da. "Jendeak gehiago kontsumitzen du orain, eta, ondorioz, prezioak igo egin dira".

"Postuen artean demaseko tartea dago eta gu arduratu behar gara sarreraz"

Arrautzak bizilagunentzat
Juli Pintadok olibak, fruitu lehorrak eta gozokiak saltzen

ditu. Argi dago jendea bere produktuak gustatzen zaizkiola, etengabe diharduelako bezeroak artatzen. Hala ere, 'El cura'-k bezala, jende gutxi dabilela uste du. "Ez dakit jendea ez den enteratu azoka berriz zabalik dagoela edo zer".

Apirilaren 17az geroztik martxan dago. "Zumarragako, Araiko eta Eskoriatzako azoketan egon gara, eta Agurainen eta hemen hasi gara orain". Hala ere, hilabete egon ziren geldirik eta ez da erraza izan. "Lau lagunek egiten dugu lan eta salmenta honetan lortzen ditugu irabazi bakarrak. Hori bai, au-





KIÑU
BURDINDEGIA

San Juan, 17-19 Telf. 943 200 492 - 943 700 926



Salmentaren erritmoa nahiko pattal doala esan digute saltzaileek.

tonomoen kuota eta bestelako gastuak ordaintzen jarraitu behar izan dugu". Gainera, alarma-egoera aurretik arrautzak ere saltzen zituen eta bizilagunen artean banatu behar izan zituen alferrik ez galtzeko.

Juliren ustez gehiegizko segurtasun-neurriak hartu dira. "Postuen artean demaseko tar-

tea dago eta gu arduratu behar gara sarreraz".

Azokek sortutako poza

Yussyfek frutak eta barazkiak saltzen ditu. Saltzailea izateaz gain, azoka zalea ere bada. "Erdi Aroko giroa duten azoketan parte hartu izan dut eta bestela ere, lan egin barik, asko

gustatzen zait azoketara joatea". Bere iritiz azokek poza eragiten dute, herriei kolorea ematen diete, eta, horregatik, ondo zaindu behar direla pentsatzen du.

Azoka da bere bizitza eta diru-iturri bakarra. "Ez dugu beste sarrerarik". Beraz, ez da erraza izan horrenbeste denbora

geldirik egotea. Orain salmenta nahiko makal dabilela ikusten du. "Jendea zain egongo balitz bezala dago, guztiak ondo funtzionatzen duela ziurtatzen". Herriz herri dabil bere postuarekin eta hori da ikusi duen jarraera orokorra. Bere fruta eta barazki freskoak erosle bila dabilta. ■

●●●
FUNEUSKADI
Grupo Axesta

●●●
FUNERARIA MUGICA
Funeraskadi

●●●
TANATORIO EIBAR

●●●
TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA Industriaidea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

CAPI

www.capiestetica.es

BEGI ingurune tratamendua

BETILE LUZAPENAK

LIFTING

ZIONIC

MARP

ESKUSIBITATEA PRIMIZIAN
TEKNOLOGIA BERRITZAILEA

1 LIPOLITIKO ANTIZELULITIKOA

2 BERMOLDARETA BITZGARRIA

3 EUSGARRIA

Rialto dantzalekua nolakoa zen

Rialtoa ireki zenetik (1931) bertan jotzen hasi zen. Lehenengo orkestra. Rialtoa zelakoa zen: dantza egiteko pista; pisu desberdinak; Bidebarrietara ematen, "ambigú" bat zegoen. Jose Ramon Orozko tenorea. Agustin Zuluaga, bandako zuzendaria. Oso ongi egiten zen dantzan; txapelketak egoten ziren.



Rialtoko orkestra. Rialto zinema izan zena, kafetegia eta dantzalekua zen jatorriz. Rialtoa inauguratu zen eguneko irudia, bertako musika taldearekin. Tartean Juanito Etxaniz ageri da.



Juan Echaniz Urruzuno
(1912 – 2003)

Elgoibartarra, ume-umetatik bibolina gustoko zuen eta aitak bat erosi zion. Musika Bandan jotzen zuen. Lehenengo, Angel Garate "Beltxi"-rekin ikasi zuen bibolina jotzen; gero, Salon Teatroan zegoen orkestra batekin ere ikasi zuen. Elgoibartik, astean 3 bider etortzen zen Eibarrera, bibolin klaseak hartzera. "Fomento"an hasi zen bibolinista moduan; ondoren, Rialtoan, jai egunetan. Casino Artistan ere jo izan zuen eta udan Debara joaten zen sarritan. 1931-36 bitartean, Rialtuan jotzen zuen neguko hilabeteetan. Musikaz gain, Elgoibarko futbol taldean ere jolastu zuen.

Juan Echanizi grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

"Bai, Rialtua inaugurau zanetik... [Eta noiz inaugurau zan Rialtua?] Ez dakit ba fetxarik... Hogeitamaikan? (pentsatzen dot izango zala tenporadia hasten danian, setienbrian edo oktubrian edo... neuk pentsatzen dot, eh? Ez dakit nik detalle horrek buruan (...)) Ni jaixo nintzan 1912xan, eta Rialtokua izan zan 31n, osea que 19 urte. Pistia hamen zeguan, ta hamen jendia egoten zan, mahaixak, danian bueltan mahaixak... ta eskillarak bi edo bajatu bihar ziran... Ta gu gaiñian jotzen, goiko plantian eta behekuian bittartian, hantxe zeguan kiosko moduko bat eta hantxe jotzen gendun. (...) Atia zelan daguan urtetzeko Bidebarrietara... hantxe zeguan ambigü bat, taberna bat, ta jentia, amaitzen zanian eta, jartzen zan hamen, por ejemplo mutillak, o gizonak edo... eratera juaten ziran, zerbeza bat eratera edo kafe bat hartzera. Ta gero zekan lehelengo pisua behekuian iguala, zera guztia mahaiz beteta. Gero zeguan barra, barrara be jende asko juaten zan. Barrian egon zan bat, Orozko tenoria, haretxe botones sartu zan hamen, Rialtuan".

E
IBARTARREN



1910 inguruan. Estazio kalea. Espaloi Berberean Hotel Comercio ezaguna (lehenengo eraikuntza eskumatara) eta Salón Teatro Cruceta zeuden. EIBARKO UDAL ARTXIBOA. CASTRILLO ORTUOSTE FONDOA.

Kruzeta zinema eta inguruko lokalak

Kruzeta zinema. Zinema gainean galeria bat zegoen. Bertan azkenengoz eskopeta tailer bat egon zen. Alokatu egiten zituzten lokalak. Pageiko Klinika egon zen lekuan ere tailerra egon zen. Kafetegian, dantzaldiak egiten ziren batzuetan: aratusteetan, San Blasetan...



Jose Mari Cruceta Alberdi
(1930 – 2002)

Eibarko Estaziño kalean jaiotakoa, Kruzetaneke etxean. Oraindik ume txikia zela Errepublikaren aldarrikapenaren inguruko ospakizunak bete-betean bizi izan zituen (garaiko argazki ezagun batean agertzen da). Familia kontuak asko interesatzen zitzaizkion eta, ondorioz, oso ondo ezagutzen zituen: jatorria, Kruzetaneke etxearen sorrera, Kafearen hastapenak, aita Perikok martxan jarri zuen Kruzetaneke zinea... umea zela tokatu zitzaion Gerra Zibila bizitzea; Eibarren lehenengo, Toledon geroxeago. Gerra osteko Eibar haustuta ikusi zuen bueltan. Ikasle bikaina, Armeria Eskola amaitu eta, eibartarren izaera ekintzaileari eutsiz, enpresa munduan lan izugarria egin zuen.

Jose Mari Crucetari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

“Egin zan teatrua. Taillarra atzian, ta zine gaiñian be taillar bat, galerixia, oin be badago. Hor euki eben azkenengo taillarra, zelan diraz... Arrizabalaga. Eskopeta taillarra euki eben oin gitxi arte. Oin hutsik dago, porque egunen baten bota egin bihar da eta ez dogu nahi alkilatzerik eta obrarik egitterik bez. Baiña atzian dago, klinikia egon zan lekuan egon zan taillarra. Aittak alkilau egitten zeban, egon ziran taillarra eta almazena, Otaola y Bildosolan almazena be, burdiñena, azpizan. Holantxe izan zan hori. Eta teatrua hamentxe, eta kafia... sartzen zan oin Bambino dendia dagan tokittik eta hamen egitten zan kafia, eta batzuetan bailia, Sanblasetan eta Aratostietan eta... egitten zan bailia. [Orduan lokal bi zeren, bat aurrekaldian, egitten ziran kafia eta bailia eta teatrua atzian. Eta atzerago taillarra] Bai, osea, Pagei kale guztia, bai, holanxe huan [Baiña sarrerria hamendik zekan] Sarrera bai, baiña urteera beste aldetik be bai, eh!”

A HOTAN



Jesus Gutierrez

Jesus Gutierrez

Desfasearen fasea

Gabriel Garcia Marquez idazle kolonbiarrak esaten zuenez, pertsonok hiru bizitza mota ditugu: Bizitza publikoa, guztiek ezagutzen dutena. Bizitza pribatua, gure bizitza intimoa eta ingurukoena dena. Eta, azkenik, bizitza sekretua, guk bakarrik ezagutzen dugun hori. Orain laugarren bizitza mota azaldu zaigu: bizitzen dihardugun “normalizatutako” pseudobizitza.

Onartzen dut badudala Fernando Simonen antz pixka bat, bere bekain trinkoak alde batera lagata, baina azkenaldian gero eta galduago nago hainbeste fase eta fase aldaketekin. Niretzat guztia errazagoa izan beharko litzateke: 1 Fasea, guztiok beldurak janda komuneko papera eta gela (eskuetakoa, ez bestea,

“Maskarak: Euskal sudur prototipikoa ondo egokitzen da neurri horretara, baina ez dezagun ahaztu sudurmotzek egokitze arazo larriak izan dezaketela”

zenbat denbora... Itxita egon ondorengoko oporrak gertu ditugu. 5 Fasea: Almax. Betiko normaltasunera itzuliko gara. Oso egokiak biharamunerako. Erraza da. Parranda egin eta gero, aipatutako faseak osatzen dituzu: Eskuetan gela eman, Valeriana hartu, maskara kendu, eguzki-krema eman eta Almax-a hartu. Hara!, betiko pseudobizitza “normalizatua”. Desfase iraunkorraren fasea.

argi geratu dadila) erosten. 2 Fasea: Valeriana fasea, lo egiteko pilulak hartuz egun guztian geldirik egon arren. Fase hori garrantzizkoa zen oso, bakarrik falta zitzaigun Gobernutik behin eskatu herriaren alde potrojorran egotea eta kale egitea. 3 Fasea: Maskarak (kirurgikoak, higienikoak, fFP2...). Euskal sudur prototipikoa ondo egokitzen da neurri horretara, baina ez dezagun ahaztu sudurmotzek egokitze arazo larriak izan dezaketela. Zatarrei, ordea, anonimotasunean besteen parean lagatzen die, inoiz ez dira hain integratuak sentitu.

4 Fasea: Eguzki-krema. Hasi gara pentsatzen noiz joan hondartzara, zelan,



Unai Artetxe

Unai Artetxe

Maskarak

Lehen fasea. Erdia. Lehena. Bigarrena. Hirugarrena. Faseak gora eta behera, horrela igaro ditugu azken bi hilabete pasa hauek, etxeko igogailuan bageunde bezala. Kalera noiz eta nola irten adinaren arabera zehaztu digute. Ordutegi eta arau zehatzak jarri dizkigute; gehiegizkoak, batzuentzat, bete beharrekoak, besteentzat.

Zein egunetan bizi garen jakitea zaila bihurtu zaigun honetan, etxetik noiz, nola eta zertarako alde egin halabeharrez ikasi behar izan dugu. Batzuk ikasi omen dute. Beste batzuk, espero bezala, ahalegina ere ez dugu egin.

“Faseak joan eta faseak etorri, kalera irteteko baldintzak leuntzearekin batera maskara kentzeko unea iritsi zaigu gehienoi, eta solidaritateak norberekoikeriari lekua utzi dio”

Gauza bakarrak batu gaitu gehienok. Arratsaldeko zortzietako txalo zaparradak. Horrek elkartu gaitu etxeko leiho, balkoi eta terrazatan. Denok batera hautsi dugu kaleko isiltasun apokaliptiko hori. Batzuk erizain, mediku eta gure osasuna bermatzeko lanean ari direnen alde txaloka. Besteak garbitzaileak, okinak, supermerkatuko langileak eta beste ezinbesteko langileak txaloka omentzen. Batzuk umeak ere izan ditugu gure txaloen erreferente, arratsaldeko bostak aldera-edo, derrigorrezko itxialdian erakutsi duten heldutasuna eta jarrera goraiatu asmoz.

Gizarte solidarioa izan gara. Txalo egin behar izan dugunean bizilagun guztiak elkartu eta hor izan gara, hori bai, bata bestearengandik bi metroko distantziari eutsiz. Bingo eta bestelako jolasetan ere aritu gara, bakoitza bere txanda errespetatuz; dantza ere elkarrekin egin dugu, eta gutxi batzuk ere adineko bizilagunak lagundu dituzte, erosketak egin eta etxeko atarian utziz. Seme, alaba, anai, arreba, iloba, biloba eta bestelako senideekin bideokonferentzia bidez nola aritu ere ikasi dute gure zaharrek bi hilabete hauetan.

Faseak joan eta faseak etorri, kalera irteteko baldintzak leuntzearekin batera maskara kentzeko unea iritsi zaigu gehienoi, eta solidaritateak norberekoikeriari lekua utzi dio. Bizilagunekin batera hainbeste disfrutatutako bingo saio luzeak ezer ezean geratu dira, eta dagoeneko ari gara edozein kafetegiko terrazaren bueltan beraien aurka aulki-jolasean, tokia zeinek lortuko lehian.

Kendu maskarak!

19/20
Matrikula
epa zabalik
Plaza de
matriculación
abierto

**Euskararekin
Match!**

Udako euskara
ikastaroak
Cursos de verano
de euskara

UDAKO
Euskara Ikastaroak
UDAL EUSKALTEGIAN

**MATRIKULATZEKO
EPEA**
Ekainaren 1etik 19ra

16 urtetik gorakoentzat
B2 eta C1-EGA
prestakuntza ikastaroak

**Ekainaren 29tik
uztailaren 24ra**
(AURREZ AURRE, GOIZEZ)

TARIFA BEREZIAK ditugu
Euskaltegira joateko **hitzordua** beharko da

Bista Eder 10 -PORTALEA-

euskaltegia@elbar.eus
Telefona: 943 700 912
Faxa: 943 820 089



San Agustin, 3 / 943 567 232
www.peluqueriasoul.com

SOUL
estilistak

OPI

<<< **ARRATE GARITAONANDIA**
Psikologoa >>>

“Itxialdian familia eszenatoki nagusia izan da”

Helduentzat bezala, haurrentzat eta nerabeentzat ere konfinamendua inoiz bizi izan ez duten egoera da, eta egoera berri horretara egokitu behar izan dute. Arrate Garitaonandia psikologoarekin egin dugu berba konfinamenduak eta bizitzeko modu berriak haur eta nerabeengan izaten diharduen eraginari buruz.

Haur, nerabe eta haien familiarikin egiten duzu lan. Nolako eragina izan du itxialdiak haur eta gaztetxoengan?

Errealitatea oso anitza da, eta ezin gara orokortasunean geratu. Eraginaz hitz egiten dugunean gauza asko hartu behar dira kontuan. Alde batetik, zirikusi handia du haurren garapen-fasearekin. Fase bakoitzean behar espezifikokoak egoten dira. Ez da gauza bera hiru hilabeteko haurra edo 7 urtekoa; azken honentzako mugitzea ezinbestekoa da, eta bere fantasien mundua bizitzeko beharra dauka, lagunekin harremanak

“Dolu askori egin behar izan diogu aurre: senideen heriotzak, lanpostuak galtzea, segurtasun eza, errutinak galtzea...”



izan... Nerabeek taldearen babesa behar dute, modu presentzian; euren identitatea talde-harremanetan oinarritzen da. Itxialdian eurentzako hain garrantzitsuak diren harreman horiek, lagunak, irakasleak... desagertu egin dira. Eta, beste alde batetik, familiaren faktorea aipatu behar da. Azken batean, konfinamendua etxean sartuta egotera behartu gaituen murrizketa bat izan da.

Eta zer dakar etxean egotera behartuta egoteak?

Horrek dakar gainerako estimulazioak ukatzea, eta energia

guztia familian kontzentratzea. Haurrek edo nerabeek egoerara moldatzeko duten modua familiarik duenaren arabera izango da. Hori da oinarria baurrek inpaktoa moteldu ahal izateko. Baina horretarako helduok ere geure zailtasunei aurre egin behar diegu. Beraz, itxialdiak txikiengan duen eragina ikusteko lehendabiziko gauza familia hori nolakoa den ikusi behar da, nolako sendotasun mailarekin egiten dion aurre egoera honi. Egun asko dira, eta dolu askori egin behar izan diogu aurre: senideen heriotzak, hildakoei agurrik egin ez izatea,

CORRAL
#Eibarrenbadakagu
GIZON MODA
T. Etxebarria, 17 943-201949

- Estetika
- Masajea
- Diodo laserra


Centro de Estética
Idoloia Bergaretxe

 Estazioño, 1 - beheko
943 20 03 45 Idolobergaretxe@hotmail.es

lanpostuak galtzea, segurtasun eza, errutinak galtzea... Hau horrela, babes-faktoreak edo arrisku-faktoreak eman daitezke. Babes-faktorea izan daiteke, adibidez, entzute aktiboa egitea haur eta nerabeekin, eta arrisku-faktorea, berriz, estres deskontrolatua.

Konfinamenduak utzi digun opari bat familiarteaz gauzak egiteko denbora izan da, ezta?

Bizitza estiloa asko aldatu zaigu denoi. Familia askorentzat elkar aurkitze bat izan da. Irtenbide kreatiboak bilatu dituzte, elkarri gehiago entzun diote... Baina lehendik genuen familia-dinamika estiloa dela eta, familia batzuetan isolamendua handiagoa ari da izaten. Familiako kide bakoitza gela batean dago: konfinamendu bat beste konfinamendu baten barruan, azken batean. Eta horrek arrisku gehiago dauka. Esate baterako, pentsatu dezagun nola biziko duen egoera gurasoen arteko gerraren erdian bizi den nerabe batek.

Datuek adierazten dute haur, nerabe eta emakume askok laguntza-telefonoak erabili dituztela etxe barruko indakeria salatzeke.

Horrek erralitate bat erakusten digu: indarkeria matxista eta haurrei egiten zaizkien abusuak konfinamenduan larriagotu egin direla. Zenbat eta estres eta beldur handiagoa egon, orduan eta indakeria handiagoa ematen da erasotzailearen alde. Lehendik ere arazo horiek zituzten familia askok konfinamenduarekin baliabideak galdu egin dituzte (osasun menta-



“Leku irekiak bilatu behar ditugu, umeei inguru naturaletan jolastu ahal izan dezaten”

leko zerbitzuak, hezitzaileak...), eta, ondorioz, egoera ahulean daude. Beste kasu batzuetan, indakeria agertu den lehen aldian izan da. Argi dago zaurgarrienak haurrak direla, eta zaila izango da eurengana iristea; askotan irakasleak edo sendagileak izaten dira horrelako egoerak antzematen dituztenak. Osasun mentalaren kolapsoa egongo dela aurreikusten da. Ez bakarrik arazo larriengatik, baita konfinamenduak eragindako ondorengatik ere.

Harreman sozialak aldatu egingo dira hemendik aurrera?

Egoera honetatik aterako den alde positibo bat harreman sozialei dagokiena da. Haur eta

nerabeen garapenean oso garrantzitsuak dira harremanak eta kontaktu fisikoa. Teknologia baliatuz digute konexioan egoteko, baina ez da gauza bera. Eta hori baloratzea oso garrantzitsua da, gizarte moduan norantz joan nahi dugun erabakitzeke orduan. Itxialdi honetan zehar, familia askotan modu kreatiboak eta imajinazioa erabili dute umeei itxialdia arintzeko, baina beste familia askotan pantailen atzean babestu dira. Hau arriskutsua izan daiteke; ikusten ari da pornografiarako eta apostu-jokoetarako sarbide goiztiarra gertatzen ari dela. Askotan, gure erosotasunagatik, seme-alaba "entretentua" egotea lehenesten dugu, baina kontuz ibili behar dugu. Mugak ez baditugu jartzen, ondorioak etorriko dira.

Nola eramaten ari dira etxean ikasteara umeei, nerabeek eta euren familiek?

Errutinak beharrezkoak dira, aurrera egiteko energia ematen digutelako, baina gainestimulazioa zeregin askorekin oso negatiboa izan daiteke. Etxeko lanekin askotan estres larri egon da, batez ere hasierako uneetan. Ezin da eskola bat etxe batean antolatu, oso konplikatu da. Baina, aldi berean, orain arte euren seme-alabei eman ezin izan dieten laguntza emateko aukera izan dute guraso askok. Bestalde, haur batzuk eskolako betebeharrak babestu dira, errealitateki ihes egiteko edo etxean gertatzen ari denaz babesteko. Beste batzuetan, ikastetxera ez joateagatik lasaitasuna hartu dute, eta hori gertatzen da euren ikaskideekin

harremanak izateko arazoak dituztenekin. Gauza bera ikusten ari gara harremanetarako zailtasunak dituzten nerabeekin ere. Dena dela, denbora honetan etxean leku seguru bat aurkitu baldin badute, lagungarria izango da eurentzat, tranpolin bat izango da. Segurtasuna beti da positiboa.

Nola eragiten du Eibar moduko herri batean bizitzeak?

Bizi dugun egoera honetan oso garrantzitsuak dira etxebizitzaren ezaugarriak eta inguru ireki edo itxi batean bizi garen. Ariketa fisikorik ez egiteak haurraren loaren eta elikaduraren prozesuetan eragiten du. Deseskalatze sasoi honek balio behar digu gorputzak "esnatzen" joan daitezen. Leku irekiak bilatu behar ditugu, umeei leku naturaletan jolastu ahal izan dezaten. Nerabe asko inoiz baino gehiago ari dira gurasoekin edo lagunekin mendira joaten.

Itxialdian kreatibitatea asko piztu dela esan daiteke...

Bai, zalantza barik, etxean gartatu den osasun-aukera bat kreatibitatea da. Etxe askotan musika buru-belarri sartu da, gordeta zeuden instrumentuak berriro atera dira; antzerkia egin da, artelanak... Demonstratuta dago kreatibitatea osasunarekin lotuta dagoela. Kreatibitate azaltzen ez duen umea, zailtasunak dituen umea da.

Nola eramango dute uda haurrek?

Berriro ere azpimarratu nahi dut, nagusiek nola haurrek hala egingo diote aurre egoerari.

FAUSTO
kafetegia

GOSARIAK
FLATER KOMBINATUAK
PINTXOAK
OGITARTEKOAK

Karmen kalea, 1
608 133 535

dp donpiso
FIDATU ZAITEZ PROFESIOALETAN BAKARRIK

Isasi, 16
EIBAR

M. Valdespina, 12
ERMUA

donpiso@donpiso.eibar.com

www.donpiso.com 943 82 05 10 618 769 839

Eibar BHko DBH4ko eta Batxilergoko ikasleak datorren astean itzuliko dira geletara. Hori bai, “beharren arabera”, Rosa Jaussi zuzendariak esan digunez. “Ikasgai batzuk gairitu gabe dituzten ikasleak identifikatu ditugu aurrez aurreko klaseak eman ahal izateko”.

Bitartean, beste ikasleek lan telematikoa egiten jarraituko dute ikasturtea amaitu arte, ekainaren 17ra arte, eta Batxilergoko 2. mailako ikasleek prestakuntza saioak jasotzeko aukera izango dute ezohiko azterketen ondoren. “Hala ere, ikasle guztiak ikasgai bat gairitu badute, lehenago hasi daitezke”.

Klase bakoitzeko ikasle guzti itzuliko dira eta ordutegi berezia izango dute, txandak, ikasle gehiegi ez pilatzeko. Gainera, lurra markatu dute, mahaien artean distantzia utzi, atek zabalik egongo dira beti, maskarak eta gelak egongo dira eskura, eta sarreran tenperatura hartuko zaie ikasleei, besteak beste. “Protokoloa zehaztu dugu eta familiei bidaliko diegu”. Hezkuntza Sailak ikastetxe bakoitzaren esku laga du ikasgelen itzulera ahalbidetzeko protokoloaren prestaketa eta zentroek lan handia egin behar izan dute.

Beharren arabera La Sallen

La Salleko DBH 4ko eta Batxilergoko ikasleek etxetik jarraituko dute lanean, baina ikasleren batek klase presentzialerara itzultzeko beharra sentitzen badu, aukera izango du. “Formularioak prestatu ditugu klaseetara itzuli nahi du-

Koronabirusaren ikasgaia gairitzen

Astelehenean DBH 4ko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleek klasera itzultzeko aukera izan zuten, baina gehienek etxetik ikasten jarraitzen dute. Ikasturtearen azken txanpa garrantzitsua da ikasleentzat eta herriko zentroak ikasleen behar akademikoak asetzeko prestatzen saiatu dira. Koronabirusari aurre egiten ikasi behar izan dute, inoiz ahaztuko ez duten ikasgaia.



ten ikasleen kopurua jakiteko eta horren arabera antolatze-ko”, esan digu Izaskun Ortega zuzendariak. Bestalde, datorren astean azterketak egingo dituzte eta gehienak modu presentzialerara egingo dira.

Ikastetxean hiru gela prestatu dituzte, maila bakoitzeko bat, eta 15 ikasle sartuko dira gehienez. Gainera, liburutegia eta batzar-gela zabalik lagako dituzte, “bertan 10 ikaslerekin batu gaitzkeelako”.

Ikasleei tenperatura hartuko diete sarreran eta gel hidroalkoholikoa jarriko dute. “Ezingo dute materiala partekatu, ezta ura txorrotik edan, eta Batxilergoko komunak bakarrik egongo dira zabalik”. Gainera, etengabe egongo dira ikastetxea garbitzen.

Aldatzekoak ondo prestatuta

Juankar Olaeta Aldatze ikastetxe zuzendari nagusiaren arabera “nahiko zoraturata” ibili dira itzulera prestatzen: “Hezkuntza Sailetik iritsi zaizkigun jarraibideak kontraesankorrak izan dira”.

Batxilergoko 2. mailakoei selektibitateari begira lasaitasuna emateko asmoz, ekainaren erdialdetik aurrera ikastetxera joateko aukera emango zaie, baina ordura arte ez da klase presentzialik emango.

Azken urteotan Aldatzen lan handia egin dute IKTen arloan eta, salbuespenak salbuespen, itxialdian normaltasunez egin dute aurrera. Beraz, itzulera honetan ez dute klase presentzialen beharra ikusten. “Batxilergoko 1. mailako ikasleren batek errefortzua behar badu, bai, noski. Eta DBHn berdin”.

www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

M
A
B
E

Bidebarrieta, 1 943 20 15 80



Batxilergoko 2. mailakoek uztailean egingo dute selektibitatea.

Hori bai, ikasturte amaierako azterketak bai egingo dituzte.

UNI-ko ziklo praktikoan

UNI-an Lanbide Heziketako ziklo ezberdinak daude eta gehienek modu telematikoan jarraitu dute euren jarduna normaltasunez. Hala ere, badaude oso praktikoak diren zikloak eta klase presentzialak berriz hasteko aukera egon den momentuan ikasleak berriztzuli dira UNira.

Bi ziklotako ikasleak besterik ez dira klasera joango. “Zentroan ahalik eta ikasle eta irakasle kopuru gutxien egoten saiatu gara”, esan digu Oskar Gisasola zuzendariak.

Datorren astean azterketak hasiko dira eta gehienak presentzialak izango dira, baina UNI-ko kiroldegia prestatu dute azterketak bertan egiteko. “100 mahai jarri ditugu 2 metroko distantziarekin”.

Pandemiak zikloetako 2. mailako ikasle asko praktikak egiten harrapatu ditu eta batzuek telelana egin izan ahal dute, baina gehienek ez. Beraz, proiektu bat garatzeko aukera emango zaie lan hori osatzeko. Bestetik, ikasle batzuk atzerrian zeuden Erasmus programarekin. “Etxera itzultzeko aukera eman zaie, baina batzuek atzerrian jarraitzea erabaki dute”.

Ekainaren 1erako bueltan egingo dira guztiak.

Praktiken garrantzia Armeria Eskolan

Armeria Eskolan jarduera praktikoek garrantzi handia dute eta ez da erraza izan praktikak etxean egitea. “Hala ere, aurretik prestatuta genituen baliabideei esker eta irakasleen jarrerari eskernahiko ondo egokitu ginen egoera berrira”, esan digu Garikoitz Garmendia idazkariak.

Orain, klase presentzialak egiteko aukera egon denean, segurtasuna lehenetsi du Armeriak. Beraz, ikasle guztiak ez

dira momentu berean hasi eta tailerren erabilera partekatu da, ikasle talde bakoitza egun ezberdinetan joan delarik. “Ikasle batzuk errebaso klaseetara ere etorri dira eta laster azterketak zein errekupe-ratioak egitera etorriko dira”. Kontingentzia plana zehaztu dute, hainbat neurri hartuz: gelen eta tailerren aforoa mugatu, ikastetxera sartzen diren guztiei tenperatura hartu, sarrera irteerak kontrolatu, pasilloetan ibiltzeko bideak markatu, sarreran maskarak eta gel garbitzaileak jarri... Gainera, garbiketa zerbitzua indartu dute.

GURIA
ELECTRICIDAD
MUNTAIA ETA PROIEKTU ELEKTRIKOAK

ER E-NEK

Matxaria, 2 - Pabellón 7 - Telf. : 943 70 08 95 - Fax: 943 82 00 27
www.electricidadgurria.com - 20600 EIBAR (Gipuzkoa)

1964 estudio
proyectos interiorismo altzarak

estudio 1964. Jardifela, 14 - behea Tf. 656 75 64 85



Gurasoak Berbetan: errezetak, maitasun-mezuak eta eskulanak

>>> Aste Santuko “oporretatik” bueltarako beste erronka bat zuen prestatuta ...eta kitto! Euskara Elkarteak guraso berbalagunentzat. “Jantzi amantala, sartu sukaldian eta nahi duzuen errezeta egin guk emandako osagaiekin”; izenburu hori zuen aste hartako erronkak, eta erabili zitzaketen osagaiak ziren irina, arrautzak, esnea, gurina eta txokolatea edo frutak. Sukaldari trebeak direla erakutsi zuten askok: Paulak banana-bizkotxoak egin zuen, Jonek eta Alaznek esne-ogia txokolatearekin, Maulek

eta Malenek krepeak, Pellok browniea eta Amandak eta Laiak bizkotxo bana.

Sukaldetik maitasun mezuetera pasatu ginen. Itxialdian geunden, bete-betean, umeek ezin zuten etxetik irten, eta aitxixa-amamei euren bilobak ez ikusteak sorrarazten zien pena denon ahotan zebilen egun haietan. Hori ikusita, ...eta kitto!-ren hurrengo erronka gure aitxixa-amamei maitasun-mezuak grabatzea izan zen. Bideo zoragarriak jaso genituen, maitasunez beteak, eta jakin badakigu, aitxixa-amamek asko eskertu zituztela.

Maiatzarekin batera eskulanaren erronka iritsi zen: “Birziklatu eta jolastu!”. Guk esandako materiala erabiliz -plastikozko botila, kartulina edo “goma eva”, artaziak, kola eta margoak-itsulapikoa egitea zen erronka. Horretan ere trebeak zaretela erakutsi zenuten, eta ezer erosi gabe etxean ditugun gauza askorekin jostailu zoragarriak egin daitezkeela. *Bideo guztiak ikusgai: www.etakitto.eus*

Euskal garagardo-dastaketa antolatu du ekainerako ...eta kitto! Euskara Elkarteak



>>> Boga garagardo kooperatibak eskainiko du dastaketa, ekainaren 16an arratsaldeko 18:00etan hasita, ...eta kitto!-ren egoitzan bertan (Urkizu 11 solairuartea). Boga 2014. urtean jaio zen, eurek dioten moduan, “zapora eta sentazioz beteriko garagardoaren kultura berria zabaltzeko helburuarekin”.

Garagardo naturala egiten dute, artisaua, “kalitatezko lehengaiak eta bertoko hornitzaileak lehenesten ditugu, eta bertoko gastronomiari balioa eransten diogu”. Taldea zazpi gazte profesionalak osatzen dute eta 100 pertsona zein eragile sozialen laguntza eta babesa dute.

Artisau garagardoa ekoiztu eta banatzeaz gain, bestelako

zerbitzuak ere eskaintzen dituzte, hala nola, bisita gidatuak euren fabrikari (Mungian), ekoizpen-tailerrak eta datorren ekainaren 16an Eibarrrera ekarriko duten moduko dastaketak.

Izen-ematea datorren astean

Gaur egun bizi dugun egoera dela-eta, segurtasun-neurriak hartuko dira dastaketarako, eta beraz, izen-ematea mugatua izango da. Askok jota 13 lagunentzako lekua egongo da.

Izen-ematea ekainaren 1etik 14ra egin daiteke etakitto.eus helbidean edo 943200918 telefonora deituta, eta 3 euro balio du. Euskal Herrian egiten den garagardoa dastatu eta gertutik ezagutzeko aukera bikaina.

Denda eta tabernetara itzulera COVID-19a tartean dugula

Martxoaren 14an ezarri zen COVID-19k eragindako alarma-egoera, baina martxoaren 13rako gure herriko tabernak eta dendak ixteko agindua eman zen. Ordutik hona euren jarduna geldirik egon da, eta orain dela aste edo egun gutxi hasi gara berreskuratzen pixkanaka jarduera ekonomikoa.

Baina gure bizimodua oso bestelakoa da orain, ez gara lehengora itzuli, bestelako neurri eta arau batzuk bete behar ditugu, hala bezeroek nola dendari eta tabernariak, eta herriko establezimenduak orain dela hainbat hilabete pentsaezinak lirakeen oharrez bete dira: eskuak desinfektatu, bi metroko segurtasun-tartea zaindu, mahaiak ez mugitu, establezimenduko aforoa honenbestekoa da...

Euskaraz Primeran! ekimenaren antolatzaileek adierazi dutenez; "paisaia



linguistiko hori ere euskaraz, edo gutxienez elebidun izatea bultzatzen ari gara. Une honetan, inoiz baino gehiago, establezimenduetan sartzen garenean segurtasuna eta konfiantza sentitzea oso garrantzitsua da, eta horri lotutako mezuak euskaraz egotea plus bat da. Aste honetan kartel gehiago sortu ditugu, tabernei eta elkarte gastronomikoei zuzendutakoak. Izan ere, azken horiek ere zabaltzeaz daude eta osasun-neurriak zaindu beharko dituzte han ere, sukaldean, mahaien arteko distantzian...".

Kartelak www.etakitto.eus webgunean daude eskuragarri, edonork deskargatu eta inprimitzeko moduan.

“COVID-19arekin lotutako mezuak euskaraz egotea plus bat da”

<<< CRISTINA GARCIA
Twins umeen erropa denda >>>

“Jendearen aldetik jaso dugun erantzuna izugarria izan da”

Nola izan da dendara itzulera?

Maiatzaren 4an ireki genuen, aurrez hitzordua hartuta. Aurreko egunean dendara joan ginen hitzorduak emateko eta agenda antolatzeko, eta dei pila bat jaso genituen. Jendearen aldetik hasieratik jaso dugun erantzuna izugarria izan da! Errespetuz jokatu dute une oro, umeek zein gurasoek. Bezero guztiak datoz maskarekin, baina nik badituz batzuk badaezpada. Arropa non laga behar duten ere galdetzen didate, badakite gero guztia “desinfektatu” behar dela...

Kontuan izan behar dugu saltoki handiak ere orain hasi direla irekitzen... baina izugarria izaten

ari da! Nire kasuan haurren erropa saltzen dut. Hainbat dendarirekin hitz egin dut eta orokorrean diote salmenta onak izaten ari direla, oso onak.

Nola ikusten dituzu Euskaraz Primeran! kanpainatik egiten ari diren ekimenak?

Esan beharra daukat #EibarrenBadakagu kanpaina oso lagungarria izan dela, salmentak izugarri igo dira! Jendea oso kontzientziatua ikusten dugu herriko dendariekin. Ilarake ere sortu dira, aforoa dela eta; eta, egoera horretarako sortu diren kartelak oso lagungarriak iruditzen zaizkit.



10 ERRONKA

OSASUNTSU JATEKO

Zaloa OtaduyFarmacook Nutrizio
Eskolako arduraduna
farmazialaria eta nutrizioan aditua

1

Begetala, integrala, ekologikoa, bertakoa, sasoikoa

Elikaduraren helburua osasuna da. Jaten duguna gara. Gaur egun elikatzen ez gaituzten eta jangarriak besterik ez diren produktu larregi jaten ditugu. Elikadura osasungarria, bidezkoa eta jasangarria egin nahi baduzu, hauek dira gomendio orokor eta garrantzitsuenak:

Landare-jatorriko elikagaiak aukeratu oinarri gisa. Jaten dugun guztiaren %85 gutxienez. Gehitu B12 bitamina elikadura beganoa edo begetarianoa egiten baduzu.

Platerean (eskumako irudian) agertzen diren proportzioak jarraitu erreferentzi bezala.

Egunean jaten dugunaren erdia barazkia eta fruta izango da.

Aukeratu zereal integrala, bai alea, bai ogia eta pasta. Findutakoak saihestu.

Egunean fruitu lehor esku-kadatxo bat jan.

Egunero proteina hartzen dugula ziurtatuko dugu, lekelea aukeratuko dugu landare-iturri nagusi gisa, eta arraina, arraultza eta hegaltia animalia-iturri nagusi gisa. Egu-

nean jaten dugunaren laurdena, gutxi gorabehera.

Oliba-olio birjina estra erabiltzea da aukera osasuntsuena

Findu gabeko gatza erabili, findutakoa saihestuz.

2,3,4 edo 5 otordu egin ditzakegu, beti ere otordu guztiak elikagaiekin egiten baditugu, eta ez jangarriekin.

Elikagaiek nola sentiarazten gaituzten behatu, eta ondo egiten ez digutenak saihestuko ditugu, aldi baterako behintzat.

Egoera edo behar berezirik, gaixotasunik edo desorekarik baldin badaukagu, sendagilearen edo nutrizionistaren aholkuak jarraituko ditugu.

Ondorengo ezaugarri hauek dituzten elikagaiak aukeratuko ditugu gure elikaduraren oinarri gisa: BEGETALA, INTEGRALA, EKOLOGIKOA, BERTAKOA, SASOIKOA. Horrela, gure eta etxeko osasuna zaintzeaz gain, ingurumena eta gainerako izaki bizidunak errespetatuko dituen elikadura ere egingo dugu, guztia aldi berean zainduz. Jasangarria ez bada, ezin daitekeelako osasuntsua izan.



2

Pentsatu eta prestatu aste osoko menua

Jaten duguna gara, eta erosten duguna jaten dugu. Beraz, ondo pentsatu behar dugu etxean sartuko duguna eta jateko erosiko duguna.

Erosketak egiterakoan, ikusten dugun guzitik gustokoena erosten dugu. Zaila izango da hipermerkatu batean atentzio gehien ematen digun elikagaia azalre zoragarri bat izatea, eta normalean, kaltegarriak diren produktu larregi erosten amaitzen dugu. "Edukitzeko", "badaezpada"... eta horrelako aitzakiek.

Beraz, hemen **bigarren erronka** hilabete honetarako:

Asteko menua pentsatu eta prestatu.

Erosketa zerrenda egin.

Elikagaiak elikagaien zerrendan sartu. Ez ditzagun nahastu zerrenda berean lurra garbitzeko produktua, komunerako papeira edo bizar-xaflak gure sendagai izan behar diren elikagaiekin. Horrela, benetan duten garrantzia argiago ikusiko dugu.

Erosketak merkatu plazan, zuzenean baserritarrei, ekoizle txikiei eta auzoko arraindegi, harategi eta denda txikietan egin.

Bertan hobeto aukeratuko dugu eta, berriz ere, dena zainduko dugu batera. Garrantzia duen guztia: gure osasuna, ingurua eta ingurukoak.

Erronka polita daukagu. Joango al gara denok elkarrekin guztion osasuna helburu dugularik?



AURREMATRIKULA Ekainaren 1etik 19ra

**ERDI
MAILA**

ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
MAKINERIAREN ELEKTROMEKANIKA
IBILGAILUEN ELEKTROMEKANIKA
MENPEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN
PERTSONEI ARRETA
SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA
ERIZAINZAREN LAGUNTZA
KARROZERIA

**GOI
MAILA**

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
AUTOMOZIOA
HAUR-HEZKUNTZA
METAL ERAIKUNTZAK
GIZARTERATZEA



Albitzuri Eraikuntza
Albitzuri Pol. 24
20 870 Elgoibar
(Gipuzkoa)

Tel. 943 748 019
buflegoa@meka-elgoibar.eus

Ezenarro Eraikuntza
Arregitarre Kalea, 2
20 870 Elgoibar
(Gipuzkoa)



www.meka-elgoibar.eus

Eibarko Arrateko Andra Mari Haurreskola

MATRIKULAZIOA: irailean, urrian edo azaroan hasteko

Arrateko Andra Mari Haurreskola. Jose Antonio Iturrioz, 5 (aldapa mekanikoaren ondoan)
Tif. 943-202247 arrate.eibar@haurreskolak.eus



IZEN EMATEA:

***Online:**

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 8ra
www.haurreskolak.eus
orrialdean.

***Aurrez aurre**

(Haurreskolan bertan):
Ekainaren 1etik 8ra.
09:00-14:00ak ordutegian.



<<< YLENIA BAGLIETTO • Aktorea >>>

“Maiteren pertsonaiarekin jendea laguntzen ari naizela konturatu naiz”

Itxialdian bizilagun izan dugu Ylenia Baglietto, ETB1eko ‘Etxekoak’ telesail berrian ikusi dugu-eta. Momentu gozoa bizi du Yleniak. TVE-1 kateko Acacias 38 telesailean egiten duen Maite Zalduaren paperak mundu mailako ospea eman dio, eta LGTB ikur bihurtu da, Maite eta Caminoren arteko maitasun istorioak muga guztiak gainditu ditu-eta.

Itxialdian ere ez duzu atseden hartzeko denborarik izan?

Orokorrean lan asko egiten dut, baina uste dut are lan gehiago egin dudala itxialdian. Elkarrizketa asko egin ditut, Instagrameko zuzenekoak, ‘Etxekoak’ telesaila, castingak... Egunero agenda begiratzean ezin nuen sinetsi hainbeste gauza egin behar nituenik (barreak).

‘Etxekoak’ edo castingak egiterakoan zuk izan duzu makillatzeko, grabazioa prestatzeko eta grabatzeko ardura. Nola moldatu zara?

Ni ez hain gaizki, baina imajina Kandido Uranga bere burua makilatzen (barreak). ‘Etxekoak’ demaseko esperimientua izan da. Mugikorrarekin geure burua grabatu behar genuen. Hasieran oso arraroa zen. Antzetzeko modu berri bat ikasi dugu eta saioak arrakasta izan du. Beraz, oso pozik gaude.

Itxialdia egun batetik bestera hasi zen, eta itxialdiari buruzko telesaila asmatu eta egiteko



Eibarren badakagu

Denok irabazten dugulako



gai izan zarete. Nola mugitu zarete hain azkar?

Pausokak EITBri 'Etxekoak' egitea proposatu zionean oso ideia ona iruditu zitzaion, aktualitateko gauzak kontatzen zirelako. Egutero gauza berriak sartzen joan gara, aktualitateari lotuta. Publikoa telesailarekin identifikatuta sentitu da, bere burua bertan islatuta ikusi duelako. Horregatik funtzionatu du.

Itxialdia amaituta, ekitaldi kulturalak egiteko aukera dago. Baduzu proiekturen bat esku artean?

Datorren astean Madrilera noa Acacias 38 telesaila grabatzera. Oso ezberdina izango da, protokoloak jarraitu beharko ditugulako. Platoan sartzean tenperatura hartuko digute, maskarekin egin beharko dugu lan sekuentzia grabatu arte, bakoitzak bere makillajea edukiko du besteekin ez partekatzeke, ekipo gehiago egongo dira, zapatuetan ere egingo dugu lan...

Hitzartuta zenuen proiekturen bat bertan behera geratu da koronabirusarengatik?

Bilboko Arriaga antzokian Bertold Brechten 'La boda de los pequeños burgueses' antzezlanaren egin behar nuen maiatzean, baina esan digute ez dela egingo. Bestetik, ekainean pelikula bat egin behar nuen, baina noiz hasiko den zain nago eta badi-rudi atzeratu egingo dela.

Momentu polita bizi duzu Acacias 38 telesailan. Nola bizi duzu lortutako ospea?

Momentuz lasai bizi naiz, baina egia da mundu mailako feno-



“11 urte daramatzat ondo bizitzen, oso pozik, asko ikasten eta oso gauza positiboak jasotzen”

menoa dela. Esmatzen naizenean mundu osoko jendearen mezuak jasotzen ditut sare sozialen bitartez. Hala ere, kalean ez dut sare sozialetan ikusten den fan fenomeno bizi.

Maite Zaldua ez da edozein pertsonaia. Nolako da?

Maiteren sasoiari lesbiana izatea oso gogorra zen eta hori kontatzen dugu. Telesaila XX. mende hasieran kokatzen da, Maite oso librea da, langileen eskubideak aldarrikatzen ditu... Gizarte tradizional hartan jendeak ez zuen Maite ulertzen eta,

“Zaleak zaindu nahi ditut, eurek asko zaintzen nautelako”

lesbiana dela jakitean, pentsa. Aldi berean, gaur egungo emakume lesbiana asko Maiterekin identifikatuta sentitzen dira, emakumea edozein pertsona maitatzeko libre izan daitekeela sentitu nahi dutelako. Nik maitasun librea aldarrikatzen dut eta pena da gaur egun, oraindik ere, horrelako pertsonaiek behar izatea.

Nahiz eta fikziozkoa izan, jendeak erreferenteak behar ditu? Guztiz. Gure gizartean nahiko onartuta daude sexu bereko pertsonen bikote harremanak,

baina Hego Amerikan, adibidez, ez hainbeste. Egutero kontatzen dizkidaten istorioak gogorak dira eta emakume askok egoera zailak bizi dituzte. Toki askotan kartzelan sartzen zaituzte homosexuala izateagatik.

Berezia da horrelako pertsonaia bat antzeztea?

Maiteren pertsonaiaarekin jendea laguntzen ari naizela konturatu naiz. Kulturak mundua mugitzen duela esaten da, eta nik orain neure azalean bizi dut hori.

Nolabaiteko ardura sentitzen duzu Maiteren papera egiteagatik?

Elkarrizketa asko egiten ari naiz, gai honi buruz berba asko egiten... Zaleak asko zaindu nahi ditut, eurek asko zaintzen nautelako. Niretzat oso garrantzitsua da eurek sentitzea ni hor nagoela, askorentzat Maite naizelako, ez Ylenia. Ylenia moduan Maiteren gauza asko defenditzen ditudala eta aldarrikatzen ditudala erakutsi nahi diet. Maiterekin oso identifikatuta sentitzen naiz, nire pentsamoldea Maiterena bezain librea delako.

Antzerki, pelikula, telesail eta bestelako lan ugari egin dituzu. Zure ibilbidea errepasatzeko astirik izan duzu?

11 urte daramatzat aktore izatek bizitzen eta hori zen nire ametsa aktore eskolan nengoen. Hortik bizi nahi nuen, nahiz eta hala-nola izan, eta 11 urte daramatzat ondo bizitzen, oso pozik, asko ikasten, jende asko ezagutzen eta oso gauza positiboak jasotzen.





Umeen Udal Liburutegiaren komunikazio kanal berria

Eibarko Umeen liburutegiko bloga Juan San Martin liburutegiak eskaintzen duen komunikaziorako kanal berri bat da eta profil desberdina duten erabiltzaileei zuzenduta dago: haurrak eta gazteak, familiak eta irakasleak... Askotariko erabiltzaile horiek umeen liburutegiak eskaintzen dituen informazio eta zerbitzu guztiak aurkituko dituzte gune birtual bakar horretan: "Albisteen atalean, haur liburutegiari buruzko gaurkotasan osoa aurkituko dute. Ekitaldien atalean, umeen liburutegiko jardueren agenda kontsultatu ahal izango dute. Eta etengabe

eguneratzen den irakurketagomendioen atala ere izango dute eskuragarri".

Menuaren bidez, liburutegiko katalogora, eLiburutegira eta eFilmera jo daiteke, bai eta Lehen Hezkuntzarako doako baliabide didaktikoetara eta eskolan agindutako etxeko lanetan laguntzeko atal espezifiko batera ere. Etiketen hodeian, berriz, umeen irakurketa-klubei, aldizka lantzen dituzten gaien inguruko irakurketa-gidei, erabiltzaileak prestatzeko programei eta herriko kultura-agendari buruzko informazioa eskuratzeko aukera ematen da, besteak beste.

Aurrez aurrekoak izango diren 48. Udako Ikastaroetarako matrikulazioa zabaldu dute

Udako Euskal Unibertsitateak 48. Udako Ikastaro bereziak antolatu eta horietarako matrikulazioa zabaldu du. 12 ikastaro eta bost jardunaldi eskainiko dituzte, uztailaren 13tik irailaren 4ra bitartean, Eibarren, Donostian, Usurbilen, Iruñean eta Baionan. Aurrez aurreko eskaintza izango da, "ezagutza eta esperientzien elkartruke-rako gunea baitira Udakoak". Ikastaro laburrak izango dira, 6-10 ordutakoak, eta talde txikiak osatuko dira (10 lagun gehienez). Matrikulazioa online egin beharko da, ueu.eus



orrian, eta ikastaro guztiek 10 euroko prezio sinbolikoa izango dute. Ikastaroen zerrenda eta informazio guztia UEUren web orrian daude.



Nor Naiz taldearen diskoa kalean

Gorka Baskaran (bateria), Alex Ariznabarreta (baxua) eta Josu Gil (gitarra) eibartarrek osatzen duten 'Nor naiz' taldeak lehen diskoa atera du eta *Eskulan* dendan dago salgai. Musika talde eibartarrak Facebooken eta YouTubeen jarri zituen entzungai diskoaren abestiak apirilean, baina, hasieratik, taldekideen asmoa disko fisikoa ateratzea zen. Hala ere, pandemiak bete-betean harrapatu zituen Nor Naiz taldearen asmoak eta, egoera arraro honen erdian, diskoarena ametsa izango zela pentsatzera ailegatu dira, baina oztopoak oztopo azkenean argia ikusi du. Legarreko estudioan grabatu dute lana, Walter Tuzze soinu teknikariarekin, eta zazpi rock kantu bildu dituzte bertan. Diskoak, gainera, Iñaki Larrañaga artista eibartarraren irudiak ditu.

AEKren bulegoa berriz zabalik

Ekainaren 1etik aurrera berriz zabalduko dute AEK Euskaltegi-ko bulegoa. Udarako zein datorren ikasturterako informazioa eskatu nahi izanez gero, astelehetik barixakura joan daiteke, 10:00etatik 14:00etara. Ordutegi horretatik kanpora joan nahi duenak, telefonoz deitu beharko du hitzordua eskatzeko (607534357 / 943201379). Azaldu dutenez, "une honetan 2020/2021 ikasturterako aurrematrikula egiteko aukera dago eta, gainera, deskontua izango dute orain egiten dutenek". Udako ikastaroak egiteko aukera ere egongo da, online edo autoikaskuntza eredu.



Erakusketa birtuala ikusgai

Martxoaren 13an zabaltzekoa zen *Emakumeen ekarpenak Eibarko industriari* erakusketaren bisita gidatu birtuala egin daiteke YouTube, Eibarko Udalaren kanalean. Martxoaren 8ko lantaldeak prestatutako erakusketan, besteak beste, gure herriko industrializazioan garrantzi handia izan zuten hainbat emakumeren testigantzak jaso dituzte.



Euskal Jaiari keinua domekan

Maiatzaren azken asteburuarekin batera gure herriko Euskal Jaiak bere ekitaldi nagusiak bizi izan ditu azken mende erdian. Aurten 55. edizioa bete beharko zuen “normaltasunaren harira”, baina 1965ean sortu zutenetik bigarrenez egingo du kale (1969an “queda egoerak” ez zuen ospatzea baimendu). Hala ere, Klub Deportiboko Kultura Batzordeko antolatzaileek ez dute amore eman nahi eta ahaleginduko dira “baserritar jantzi eta, balkoitik besterik ez bada ere, Euskal Jaia ospatzen”. Agintarien azken baimenaren zain laga ditugu.

Pandemia dela-eta aurtengo Euskal Jaia bertan behera laga bazuten ere, aurreikusita zegoen egun handiaren datan, maiatzaren 31an, egun horretan ospatzekoa zela gogorarazteko keinu txikia egingo dute Eibarko Klub Deportiboko antolatzaileek. Hala ere, “babes eta segurtasun neurri guztiak errespetatu” nahi dituzte eta ez dute “inolako arrisku egoerarik sortu nahi”; beraz, “horixe izango da, keinu bat, musika, dantza eta alaitasun apur bat, Euskal Jaia urtero ospatzen dugun eibartar guztiontzat ospakizun txiki bat”.

Bermuta Euskal Jaiarekin

Etzi, maiatzaren 31an, 12:00ak eta 14:00ak bitartean, Eibarko Klub Deportiboaren eskutik musikari eta dantzari talde txiki batzuk Eibarko kaleetan ibiliko dira, kalejira eta dantza-saio laburrak eskainiz, auzoz auzo eta kalez kale. Horrela, eibartarrak gonbidatu nahi dituzte,

urtero bezala, “baserritar jantzi eta musikari eta dantzari ongi-etorria ematera... balkoi eta leihoetatik. Eta, kalean bada, distantziei ondo eutsiz, eta musikari eta dantzarietako eta beste herritarrekiko neurriak gordez”.

Balkoi eta terrazetatik, sagardo, txakolin, ardo ala freskagarria eskuan, Euskal Jaiaren bizi topa partekatu eta elkarrekin topa (distantziara!) egitera gonbidatzen dituzte eibartarrak, “eta euskal musikaren doinura besoak altxatu eta dantza apur bat egitera, nor bere tokitik!”.

Kalejirak eta emanaldi txikiak

Lau taldetan antolatuta, Kezka eta Usartzako txistulariak, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak, gaiteroak eta Kezkako txistulariak ibiliko dira Euskal Jaiaren giroa kalez kale zabaltzen domeka eguerdian. Talde txikiak izango dira, gehienez 10 lagunez osatutakoak musikari eta dantzari artean, gehi beste bi

“Domekan, bermutaren orduan, dantza-doinuek hartuko dituzte auzoetako plaza txikiak”



lagun antolatzaile-laguntzaile lanetan jardungo dutenak, eta babes neurriak eta distantziak errespetatuko dituzte.

Kalez kale eta auzoetako plaza txikietan eskainiko dira emanaldi laburrak: Karmen kalean, Urkizu, Ibarkurutze, Estaziño, Toribio Etxebarria, Ego-gain, Legarre, Amaña, Argatxa, Jazinto Olabe, Eguzki plaza, Txaltxa-Zelai, Eibarko Bizikleta Plaza, Plaza Barria eta Bidebarrietan, besteak beste.

1965ean sortutako jaia

Arrate Kultur Elkareak antolatu zuen lehen urteetan; Umeen Euskal Jaia zen hasierako urte haietan. 70. hamarkadaren erdialdean Eibarko Klub Deportiboak Euskal Jaiaren ardura hartu zuen arte. 2015ean, ekitaldiak mende erdia betetzen zuela-eta, aurreko urte guztietako errepassoa egiten zuten liburua eta dokumentala kale-ratu zituen Klub Deportiboko Kultura Batzordeak. ■

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37 Tfnoa: 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Fax: 943 20 04 94

ELEKTRIZITATEA

egoluz 

Ego Gain, 9 cc 677 51 24 62
ego.luz@hotmail.com 630 95 73 45
943 20 06 97

IGELTSEROAK

 **irazabal**
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

Ego Gain, 2 - Bae **trinmer**

Tfnoa: 943 12 73 80
www.trinmer.com

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

THELECEP 
TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRITZAGARRIAK
24 orduko argiztalak
610 532 922

ARKITEKTOAK

olatz etxeberria martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-el.com Tel. 649978632

estudio etxeberria

aritektoa, ingeniaria eta pertsonak
enplein eta abiarazteko lukeaketa teknikoak

Merkato, 7 - surra
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-el.com

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. 
INSTRUMENTACION
TUBERIAS
ELECTRICIDAD
E.I.T.
ELECTRICIDAD
INSTRUMENTACION
A.T. ZARAGOZA S.L.
Barrena, 6 - beheko esk.

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
VALLE DE ERREKATXU, 3
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@crystalernaacha.com **ERAKUSKETA**
W eta fax: 943 203 903 Arkituzko Zebian

AROTZAK

ulmar
S.L.

metalaketa
enpleatza

aluminiozko eta PVC-ko arotzgia
balta toloak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 87 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARRIEN, Oteku 20an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**
PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMOEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 - ELGOIBAR-
605 713 168 943 744 019

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK
Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa
Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

GARBIKETAK

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**
Superficie
mota guztiak
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua
Tfnoa: 943 001 082
Mobila: 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Aragueta, 18-2.D

www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.



Txikiena ere, gertutik protagonista. RAMON BEITIA.

	8		5	6		1	9
9			1		3		7
				7		8	
5				4			
	2			1		5	
			6				1
	4		9				
8		5			1		4
6	1		7	5		9	

soluzioa

6	9	1	7	5	9	2	2	8
7	2	2	1	6	9	6	5	9
9	6	6	2	2	6	1	7	8
2	2	9	9	1	6	7	6	1
6	7	5	2	2	9	8	1	1
1	6	2	5	9	7	6	2	2
2	1	9	9	2	5	6	6	1
6	7	2	6	9	1	1	7	9
5	6	2	2	1	6	7	7	8

SUDOKUAK

7			2				
4				3			
		5	7		6	1	
		9		5			1
		6	2	7	5		
5			9		8		
	4	1		2	9		
			8				4
				5			3

soluzioa

6	9	1	7	5	9	2	2	8
7	2	2	1	6	9	6	5	9
9	6	6	2	2	6	1	7	8
2	2	9	9	1	6	7	6	1
6	7	5	2	2	9	8	1	1
1	6	2	5	9	7	6	2	2
2	1	9	9	2	5	6	6	1
6	7	2	6	9	1	1	7	9
5	6	2	2	1	6	7	7	8

EIBARKO BERBAK


Nola esaten zaie Eibarren hor agertzen direnei?

HORIZONTALLEAN

- 2. Noski / 4. Guraizeak / 5. Piztu / 6. Bidali
- 8. Agian / 10. Korrika / 12. Itzali
- 13. Baratxuria / 15. Armiarma / 16. Bezala
- 17. Baratza / 18. Isatsa

BERTIKALEAN

- 1. Begirada / 3. Odolki / 4. Amona
- 7. Iruditu / 9. Aurkitu / 11. Salatu
- 13. Babarrunak / 14. Ulertu



LABIRINTOIA



Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Farmaziak

BARIXAKUA 29

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

ZAPATUA 30

EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

DOMEKA 31

EGUNEZ | Morgado (San Agustin, 3)

ASTELEHENA 1

EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)

MARTITZENA 2

EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

EGUAZTENA 3

EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)

EGUENA 4

EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)

BARIXAKUA 5

EGUNEZ | Lafuente (Sostoatarren, 10)

GAUEZ BETI, 2020an,
Barandela (Ziriako Agirre, 4)

Eguraldia (euskalmet.net)



Hildakoak

- Anselmo Vazquez Puga. 80 urte. 2020-5-27.

Jaiotakoak

- Jule Agote Oregi. 2020-V-19.
- Syeda Fatim Ali. 2020-V-19.
- Markel Villar Santo Tomas. 2020-V-19.
- Maialen Moyua Barrenetxea. 2020-V-21.
- Haron El Kanouni Bachiren. 2020-V-24.



ek!

**ESKELAK,
URTEURRENAK
ESKERTZAK...
jartzeko:**

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

ek!

**ETXEKOEN
ZORION-
AGURRAK
bidaltzeko:**

publizitatea@etakitto.eus

JESUS FERNANDEZ LEZCANO

(2020ko maiatzaren 21ean hil zen, 91 urterekin)

**"BETI GURE PARTE IZANGO ZARA.
EZ ZAITUGU AHAZTUKO"**

ZURE FAMILIA



943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20 ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurra etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezu.



Zorionak, **KEPA**, gaur 12 urte egiten dozuz-eta!!! Ondo pasa eguna, etxeko guztion partetik.



Zorionak, **ALAITA!** Bixar 3 urte betetzen dozuz-eta, neska haundi! Musu potolo bat Amets, aitta eta amaren partez.



Zorionak, **MARKEL**, atzo 8 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **XABIER!!!!** Eguenian urtetxua egin zenduan-eta. Musu haundi bat Tia Nuria eta Tia Naiararen partez.



Zorionak, **ELENE!**, gaur gure printzesak 7 urte egiten dittu-eta! Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **EKHI** Castro, maiatzaren 24an 8 urte bete zenduaz-eta. Etxeko guztien partez!



Zorionak, **MALEN**, printzesa, eguaztenian 4 urtetxo bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, lkerren partez.



Zorionak, **ELENA**. 8 urte!! Zoragarri pasa zure egunian. Naia eta Irati zure lagun partez. Musu haundi bat!!



Zorionak, **MALEN** eta **ENEKO**, gaur 5 urte eta urtetxua betetzen dozuz-eta. Eskerrik asko zuen poza eta barriengaitik. Musu erraldoia aitta eta amaren partez.



Zorionak, **OIHAN**, mutil haundi!! Domekan 3 urte beteko dozuz-eta! Musu haundi bat eta puntu orlegi asko famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MIKEL** (6 urte maiatzaren 27xan) eta **NAIA** Mondragon (9 urte apirilaren 14an) urtiak bete dozuzelako. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MALEN!** Hillaren 24an urtetxua bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, aitzitza eta amaren partez.



Zorionak, **ANTON**. Martitzenian 5 urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Sabinaren partez.

**ZURE DENDA,
NEGOZIO edo
ENPRESAREN
PUBLIZITATEA
JARRI NAHI BADUZU:**

publizitatea@etakitto.eus

943 20 09 18 - 943 20 67 76

Armagin, 3-5 beheak

PUBLI RESA
objeto publicitario

merchandising
serigrafia
lanerako erropa

publiresa@publiresa.com 943 701 497 / 687 879 667

Je rónimo
JUSTAILLUAK
F. Calbeton, 5
943 20 10 14

Iragarki laburrak


943 20 09 18

publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Neska euskaldunak etxea hartuko luke alokairuan Untzagatik gorako auzoetan. Tel. 646-369330.
- Bikote arduratsua eta lanarekin etxea hartuko luke alokairuan. Tel. 649-662386.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256.

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Urkin. 22 m2. Musika taldeen entseguetarako prestatua (guztiz isolatua). Komunarekin. 150 euro hilean. Tel. 679-843282.
- Garajea hartuko nuke alokairuan Urki, Txaltxa Zelai edo P. Etxebarria inguruan. Tel. 645-007388. Jasone.
- Lokal argitsua alokagai Jardiñeta kalean. Gazteentzat edo musika-taldeenentzat aproposa. 140 m2. Etxebizitzik ez eraikinean. Tel. 656-756485.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-415374.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-246551.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-874525.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 612-206409.
- Neska eibartarra eskaintzen da umeak zaintzeko edo nagusiei konpainia egiteko. Tel. 688-815440.
- Neska eskaintzen da asteburuan garbiketarako egiteko. Tel. 602-028275.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 602-341070.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 616-524396.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lank egiteko eta sukaldatzeko. Tel. 632-329301. Marta.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Baita gauz ere. Tituluarekin. Tel. 602-490595.
- Emakumea arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-120664.
- Eibarko emakume arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 658-845081.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak

zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-777600.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldatzeko. Tel. 632-167782.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta eurei etxeko lanetan laguntzeko. Tel. 612-223075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 645-248040. Blanca.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Titulazioarekin. Tel. 666-197831.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta tabernari edo dendarari moduan lan egiteko. Tel. 644-071237.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia eta ziurtagiriak. Tel. 603-514085.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-246551.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-876380.
- Gizonezkoa eskaintzen da gauz nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-782442.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 637-137104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-810065.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Tel. 612-202116.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ziurtagiriarekin. Tel. 667-060292.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan jarduteko eta mendiak garbitzeko. Tel. 602-188264.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-584198.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 623-319422.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-820091.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-115699.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-872627.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-492550. Alicia.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-652496. Ana.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-486770. Teresa.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-800924. Ana.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 631-907532.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 635-480807.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 620-683911.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 665-348938.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Euskarazko klaseak ematen dira. Presentziala eta on line. Perfiletarako prestaketa eta umeentzako eskolako errefortzua. Tel. 620-608065.
- Euskarazko klaseak ematen dira. Perfiletarako prestakuntza: IVAP, HABE... Umeentzako eskolako errefortzua. Tel. 620-608065.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasteko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Kawai pianoa salgai. Oso egoera onean. Aulkia opari. Tel. 667-549101.
- Auto gainean jartzeko kutxa salgai. Evospace400s etxekoa. Tel. 678-075299.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Audifonoa aurkitu dut. Galdu bazu zerbaki honetara deitu dezakezu. Tel. 660-685544. Aurora.

6.4. Bestelakoak

- Berbalagun talde bat osatu nahi dugu ingelesez berba egiteko. Horretarako, ama-hizkuntza ingeleza duen norbait behar dugu; trukean esker/erdera beharko balu, gu prest laguntzeko. Tel. 628-780910.

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua



Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23 Tel. eta Faxa: 943 20 77 34 jorgevega.eibar@gmail.com

ArmeriaEskola^x

NAZIOARTEKOTZA AUKERAK
Europa/Mundurako bekak
Zikloak ingelesez

METODOLOGIA BERRITZAILEAK
Erroñketan oinarritutako talde lana

ESKAINITZA ZABALA
Erdi eta goi mailako zikloak, espezializazioak

LAN POLTSA
Langile teknikoaren beharra

LAN AUKERA ZABALA
Enpresa harreman estua

GERTUKO HARREMANA eta ORIENTAZIO PROFESIONALA

AURRE MATRIKULA
Ekainaren 1etik 19ra
(biak barne)

info gehiago, gure webgune eta sare sozialetan!

www.armeriaeskola.eus



ESLABAN eraikuntzen eraberritze proiektuetan espezializatutako enpresa da. Soluzio pertsonalizatuak kalitate gorenarekin eta zerbitzu bermerik handienarekin eskaintzen dizugu.

■ Igogailuen instalazioa eta eraberritzea, oztopo arkitektonikoen ezabatzea...

- Eraikuntzen eraberritze lanak: fatxada eta estalkien zaharberritzeak.
- Eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko eraberritze lanak.

B
www.NewBEE.eu

ESLABANen helburua, bezeroen behar zehatzei irtenbide egokiena ematea da, eta martxan jarritako eraberritze lan guztiak kalitate eta profesionaltasun maila handienarekin aurre egingo diogunaren bermea eskaintzea.

Otaola, 27-esk. eskuma, 3^o ezkerrean • Apdo. 160
20600 Eibar (Gipuzkoa)

Tel.: (+34) 943 820 407 • Fax: (+34) 943 820 724
E-mail: info@eslaban.com

www.eslaban.com